

Arrasate

P R E S S

1997ko
Urtiak 17
380. zenb.

IKUSPEGIA
**JESUS
LARRAÑAGA**

IRITZIA
**OSKAR
ELIZBURU**

30 GALDERATAN
**EUKENI
OLABARRIETA**

Errautsetatik berpiztu da Leintz Gatzaga, Fenix hegaztiaren antzera. Etorkizuna denon artean lantzen dela erakutsi du herri honek.

Leintz Gatzaga bizirik

muebles

RKUZ

Erakusketaren berrizketa!

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

ARETXABALET

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxe: 79 23 51




VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.


Neoliberalismoaren txokea

Hegoameriketako hainbat lurralde ikusteko aukera izan dut eta guztiak, teoria populistaren porrotaren ondorioz, terapia neoliberalen menpe daude.

Populismoak justizialismoarako bidea hartu du. Agian Argentina populismoaren handinahitasunaren eredu nabarmenatariko bat da, Bistan dago: aberastasunetz betetako herrialde bat, bigarren gerrate mundialaren aurretik mundu mailan posizio distiratsu batean zegoena, gaur egun herrialde garatuen artean dago. Idolatria populistaren, errealismo ekonomikoaren legeen, eta giza psikologiaren mespretxuaren ondorioz gertatu zen hori.

Teoria pseudoautarkikoa ezarri zuten, inportazioak barne produkzioarengatik aldatzeko, berehalako ondorioekin: teknologia eskaseko enpresak.

Ilusioen eta ama aberriaren handitasunaren



Jesus Larrañaga

mezularien eskuetan ez zen ezer konpondu, estatuak eskua sartu, eta korrupzioaren eta funtzionarioen ezgaitasunaz usteldutako enpresak sortu zituen.

Hiperinflazioaren espiralera igotako herrialde batean (urtero 1000tik gora), herriak ardura bakarra zuen: dirua erabiltzea. Ekonomia artifiziala, biziataua, askapen kolektiboaren ibilbide berria idealizatu zuten ametsekin bukatu zuena. Eta orain justiziaren paradisua

agindu eta ricino olio eman die Menenek, ezgaitasunaren lepokoa apurtzeko purga neoliberala. Errezeta gogorra, kolpe batean txioren egoera okertu duena, %50a inguru,

eta ondo edo gaizki subsidioen kontura bizi zen langile asko kalean utzi dituen.

Parte hartu dudana foroan haserrea kristorena zen, eta nire solaskideek gogor egiten zuten filosofia neoliberalaren kontra. Gaiztakeri guztiak leporatzen zien, eta sasoi bateko Argentina boteretsuaren gainbeheraren arrazoia nagusi bezala azaldu.

Denek ez dute horrela pentsatzen. Dena den, zentzugabetasun zer bat antzematen da aretoan. Denak dira errudun, kolonizatu zituzten espainiarretatik hasita gaur egun kolonizatzen dituzten amerikarretaraino; denak, eurak izan ezik, bigarren aldiz Menen hautatzen dutenak eta ustelkeria orokorra onartzen dutenak. Justifikatzeko zailak diren kontraesanak.

Baina egia da miseria nagusi dela etxe askotan, eta ez dute neoliberalismoan eta merkatuan irtenbiderik ikusten. "Giza istilu orokorra"ren alde agertzen dira, txioren iraultza, gutxi batzuk aberasten direnean milioika lagun bazterrean uzten dituen teoria bat menperatzeko. Horrelako sistema bat ezin daiteke etorkizuneko gizartearen antolamendu sistema izan, diote. Zerbaitek etorri behar du ordena jartzera paregabeko kaos horretan, eta Aristotelesen garaitik, zioen hizlarietako batek, gizakiak hainbeste oztopo gainditu ahal izan baditu, gure herriendako hain kaltegarria den neoliberalismoaren errealitatea menperatu beharra dauka. Lan nekeza munduko pobrentzat nazioarteko botere ekonomiko aurre egiteko, baina politikariek zerbaitek aurreratu beharko dute gutxi batzuren zorientasunean eta askoren miserian oinarritzen den sistema bat aldatzeko.

"Lan nekeza munduko pobrentzat nazioarteko botere ekonomiko aurre egiteko"

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beldar- do Kortabarría. **Kazetariak:** Ibaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publizitateak:** Kaitin Allende, Nerea Zalio (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerme Altube (Tel.: 79 02 26) **Disenua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Baulista Agoria, Jose Mari Astigamaga, Jesus Larrañaga, Mattide Salin, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.





380. zenbaki honetan

1997ko urriaren 17an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	11/12	Kulturaren txokoa	26
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Euren ikuspuntutik	8	Asteko gaia	17/19	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepasoa....	11	Kirolak jokoan	20/23	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Jesus Larrañaga3

Iritzia

Oskar Elizburu8

Kulturaren txokoa

Mugarik gabeko argazkiak.....26/27

30 galderetan


Eukeni Olabarrieta.....29

Aurrez aurre

Pako Robles.....24/25

Asteko gaia

Leintz Gatzaga bizirik.....17/19



Gatzagak aldaketa ikusgarriak izan ditu azken urteetan. Horien berri izango duzue erreportalan

17

ostirala

■ ZINEA

Volcano. Alai zineman 7etan eta 10etan.

19

igandea

■ ZINEA

Volcano. Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ NAFARROA OINEZ

Lan ta lan auzolan lema-pean Nafarroa Oinez Tafallan. AEDk autobusa antolatu du. Irteera goizeko 8etan Garibaitik eta itzulera 8etan.

■ OÑATIKO VI. ESKALADA TXAPELKETA

Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Kanporaketak goizeko 11etan. Finala arratsaldeko 5etan. Euskal Herriko eskalatzaille onenak egongo dira.

21

asteartea

■ ZINEA

Volcano. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Peruko preso politikoien egoera. Arratsaldeko 7etan Monterronen. *Komite Internazionalistak* antolatuta.

23

osteguna

■ ZINEA

Adictos al amor. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ZINE KLUBA

Four Rooms. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

■ HITZALDIA URIBARRIKO JUBILATU ETXEAN

Gaia: Zein da zure osasun arazoa? Hizlaria: Michel Maximo Marmier. Hitzaldia arratsaldeko 5etan izango da Uribarriko jubilatuen lokalean.

18

larunbata

■ ZINEA

Volcano. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ KOADERNAZIO IKASTAROAREN HASIERA

Udal Liburutegian goizeko 10.30etatik 12.30ak arte. Irakaslea: Maite Barandiaran.

■ ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN

Ados taldeak *Lamiak* antzezlan eskainiko du Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta. eta Gazte Txartelarekin 600 pta.

■ ELAREN KONTZENTRIZIOA GERNIKAN

Gernikara joateko autobusa Arrasatetik goizeko 9.15etan, Garibaitik.

22

asteazkena

■ BIDEOA EMANALDIA MONTERRONEN

Che Guevarari buruzko bideo emanaldia Monterronen arratsaldeko 7etan. *Komite Internazionalistak* antolatuta.

20

astelehena

■ ZINEA

Volcano. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ KARIBEKO DANTZEN IKASTAROAREN HASIERA

Arratsaldeko 7.30etatik 9.30ak arte Musakolako saloian. Klaseak astelehenean eta asteazkenetan emango dira azaroaren 19a arte.

■ **ERAKUSKETA
MONTERRONEN**

Urriaren 20tik 24ra Che Guevarari buruzko argazki erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Komite Internazionalistak antolatuta.

■ **FAMILI ETA GIZARTE
HEZIKETARAKO ZENTROA**

Enmarkazio eta enkua-dernazio ikastarotan tokia dagoenez, oraindik izena emateko aukera dago. Klaseak ostegunetan izaten dira arratsaldeko 6.30etan hasita. Ikastaroaren hasiera urriaren 23an. (79 04 59)

■ **AEKn EGA IKASTAROA**

EGA ikastaro berezia egingo da AEKn. Goizez 8etatik 10ak arte. Arratsaldez 6.30etatik 8.30ak arte. Errelebotarako aukera dago. Interesatuok deitu 77 03 69 telefonora edo zuzendu AEKren lokalera Garibai 14, 3 A.

■ **GOIKOBALU
ABESBATZA**

Urriaren 24an Goikobalu Abesbatzak San Franzisko elizan abestuko du arratsaldeko 8etan.

■ **PINTURA
ERAKUSKETA
HARRÉSIN**

Urriaren 17tik 31ra arte *Mugarik gabeko gazteak* gaiaren inguruan argazki erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **AEK EGUNA
PORTUGALETEN**

Urriaren 26an AEK eguna ospatuko da Portugaleten. Arrasateko AEKk autobusa antolatu du. Txartelak AEKn, Hiren

eta AEDn eros daitezke.

■ **AUTOENPLEGU ETA
ENPRESA EKIMENARI
BURUZKO IKASTAROA**

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak antolatu du. Ikastaroaren helburuak ekimen berriak eta autoenplegua susper-tzea, enpresa kultura zabaltzea, eta enpresa proiektua garatzeko formazioa ematea. Autoenpleguaren bidea jorrazteko eta negozio-idea abian jartzeko asmoa daukaten

promotoreei dago zuzenduta. 25-30 orduko ikastaro praktikoa izango da promotore bezala prestatzeko eta negozio-idea proiektu gauzagarri batean bilakatzen laguntzeko. Interesatuok Udaletxeko Enplegu Zerbitzura zuzendu, (79 09 00).

■ **BESAIDEREKIN
IRTEERA**

Besaideko gazte ekintza taldeak Leixargarako aterpetxera irteera antolatu du urriaren 25 eta

26rako. Izenematea urriaren 21ean eta 22an egin behar da arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.

■ **JOKIN ZAITEGI ETA
ARRASATE 97
LEHIAKETAK**

AED elkartko Kultura sailak antolatutako Jokin Zaitegi XI. Itzulpen laburren sariketa eta Arrasate 97 literatur lehiaketan lanak aurkezteko epea urriaren 31an bukatuko da.



■ **MUSAKOLAKO KIROLDEGIKO IKASTAROAK**

Aukeak antolatutako hainbat ikastaroren eskaintza handitu denez, klase gehiago eta ordutegi berriak ezarri dute. Igeriketa ikastaroa: Hobekuntza eta hastapeneko ikastaroak gazte eta helduentzat. Azaroaren 3an hasiko da hastapeneko ikastaroa. Mantenimenduko gimnasia: Iturripeko kiroldegian bi talde berri sortu dira; goizez 8etatik 9ak arte eta arratsaldez 6.30etatik 7.30ak arte. Musakolan arratsaldeko ordutegian bi talde berri: 3.15etatik 4.15ak arte eta 7.45etatik 8.45ak arte. Aerobic-a egiteko beste talde berri bat asteartetan, asteazkenetan eta ostiraletan 3etatik 4ak arte. 3. adineko gimnasia: astelehenetan, asteazkenetan eta ostegunetan 11etatik 12ak arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 17**
• Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrerías.
- Larunbata 18**
• Egunez eta gauez: Español, Iturriotz.
- Igandea 19**
• Egunez eta gauez: Corcuera, Musakola.
- Astelehena 20**
• Egunez eta gauez: Irizar, Erguin.
- Asteartea 21**
• Egunez eta gauez: Amezua, Santamaina.
- Asteazkena 22**
• Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.
- Osteguna 23**
• Egunez eta gauez: Morales, San Andres.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igalatorioa . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
 . . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
 . . . 79 78 44
 . . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
Monteron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

ERMUKO IZPIRITUTIK, FRANCOREN IZPIRITURA

A lternatiba Demokratikoa Aderitzaion bideoa plaza-ratu eta bere bozgarailu iza-teagatik epaitzen dute Madrilgo Entzutegi Nazio-nalean HBren Mahai Nazio-nala, taldu armatu batekin - ETArekin- kolaboratzea leporatzen diote.

Edozein estatu demo-kratikoan praktika normali-zatua eta ondo ikusia izan behar luke arazo politikoak gaintzeko egiten diren saia-kera guztiei ateak zabaltzea, proposamenak mahaigaine-ratu eta eztabaidatzea. Hemen, berriz, bideoan ETA-ko kideak agertzen direla eta, proposamena isilaraz-ten da eta, gaintetik, erakun-de politiko baten zuzenda-ritza osoa epaitegira erama-ten da.

PPko gobernuak eraba-kita zeukan ezker abertzale-ari eskua sartzea, bideoare-na aitzaki hutsa izan da. Zigortu nahi dituzte, eta horretarako estrategia aspal-ditik dihardute prestatzen. Garbiago geratu da Miguel Angel Blancoren heriotzaren ondoren, Ermuko izpiritua deitua izan den horren atze-an erreibindikazio naziona-lak itto nahi dituzte, inde-pendentsia eta autodetermi-nazioa hiz satanikoak bihurtuz.

Epaitegitik kanpo aspal-di izan da kondentatua Mahai Nazionala, politikoeke eta komunikabideek garbi dau-kate: HB errudun. Juridiko-

ki, ez dago nondik hartu sala-keta; baina epaiketa, Esta-tuaren egarri errepresiboak asetzeko antzezpena da, men-deku-zeremonia bat. Gure-tzat, berriz, Euskal Herriko gatazkaren trataeran atzera-pauso nabaria.

Erantzunkizun politikoa duen giza erakunde baten eginkizuna da, gure ustetan, arazoak gaintzeko bideak jorratzea eta zilegizkoa, beraz, HBk egin duena, are gehiago Euskal Herriko garrantzizko multzo baten desioak ordezkatzan ditue-nean.

Adierazpen askatasuna uka ezinezko eskubidea eta galdu ezineko altxorra dela-ko, eta herri honek irtenbide politikoak behar dituelako, gure elkartasuna adierazi nahi diegu Mahai Nazionaleko kideei.

Arrasateko Zutik

BEÑARDO KORTABARRIARI

H emen Angel Erguin. Ira-kurri juat Arrasate Pres-sen Kanpanzarko igoera, San Inazio egunean eitten dala.

Esaten dok orain 40 urte egin zela lehenbizikoa, Elo-rrixoko mutil batzuk. Bali-tekek horrela izatea, baina nik orain 75 urte neure ait-tarekin eta amarekin igo-naixuan, eta orduen Mon-dragoe erdixa joaten zuan, astoarekin eta bere otzarre-tan janarixa eta ume txiki-xak gainean.

Orain 49 urte joan ni-tzuan Zornotzatik. Elorri-xotik trenetik jaitsi eta nere emazte eta hiru seme-ala-bekin, Kanpanzar gainera oinez joan gitzuan, eta Mon-dragoeko jende asko jauan. Besarkada bat.

Angel Erguin

Eskerrik asko Angel

Kanpanzarko erreportaia egin nuenean, zeruak eta lurak mugitu nituen erro-meria horren aztamen bila. Bertan ez nuen argibide-rik emango zidan inor aurkitu, eta Elorriora jo nuen. Han esandakoak jarri nituen erreportaian, baina zuk diozunez aspal-dixeagokoa da errome-ria. Eskerrik asko Angel zure azalpenengatik, eta baita besarkada bat ere.

Beñardo Kortabarría

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Telefono mobila beharrezko ikusten duzu?



Antxon Tejada
(19 urte)
Ikaslea

Nire pisuko kide batek dauka, nik ez. Batzutan kome-nigarria izan daiteke, baina ez dut hain beharrezko ikusten.



Julia Koka
(42 urte)
Etxekoandrea

Ez daukat eta erosteko asmorik ere ez. Beharra dago-enean erostea ez dut txarto ikus-ten, baina behar barik leloke-ria bat iruditzen zait.



Ana Urueña
(27 urte)
Langilea

Etxean anaiak dauka, bai-na kamiolaria denez beha-rrrezkoa du telefono mobila. Beharra badago ondo ikusten dut.



Belen Saavedra
(29 urte)
Langabetua

Nik ez daukat, baina nire mutil lagunak bai. Lanerako erabiltzen du beharrezkoa due-lako.



Cesar Fernandez
(18 urte)
Ikaslea

Ez daukat. Hala ere, lan ba-tzutarako beharrezko izan dai-teke. Kanean pasiatzeko ez, bestela zertarako daude kabi-nak?



Kiti Jurado
(34 urte)
Langilea

Ez eta tontakeria bat iru-ditzen zait. Gainera beharez duen jende askok erabiltzen du.




Javier Roda
(33 urte)
Langilea

Erabiltzen dut, baina lane-rako. Biajantea naiz eta derri-gorrez erabili behar dut. Aste-burutan berriz, ikutu ere ez dut egiten.



Mikel Etxebarria
(17 urte)
Ikaslea

Nik ez, baina aitak bai. Jen-dea lokalizatzeko eta lan ba-tzutarako interesgarria izan daiteke.



IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

USTEAK USTE

Iluntasunetik ilunera

Irlandan 3.000tik gora hildako behar izan dituzte mahai baten inguruan jarri eta bake elkarrizketei ekiteko. Hemen, alde batekoak, tartean harrapatutakoak (horrelakoak ere egon dira), eta besteak zenbatuta, 800tik gora doaz. Hala ere, inork ez du inon jartzeko asmorik erakusten.

Irlandan moduan, 3.000ra iristeko falta diren 2.200 hilotzak beharko ditugu norbaitek nahikoa dela pentsa dezadan? Xabier Arzalluz jelkideak, orain hilabete batzuk egindako elkarrizketa batean adierazi zidan tunel denek dutela irteera eta hemengoak ere izango dugula, noizbait irtengo garela bertatik. Nik baino informazio hobea izango zuen seguru seguru, baina esperantza hutsean oinarritutako esaldi bat iruditu zitzaidan, egarriz dagoenari ura aurkituko duen promesa egiten zaionean bezala. Neuk ere esaten ditut horrelakoak, "noizbait bukatuko da" eta abar, baina errealitateak (Orain aste batzuetako Bilboko bi ETAkideen heriotzak edo herenegungo ertzainarenak), kontrakoa erakusten dit.

Galderak, dena den, hor daude: noiz arte horrela? 3.000. hilotzera iritsi baino lehen egoerari emango diogu bueltarik? Bestela, tunel luzeegia litzateke.

Beñardo Kortabarria



AEK Eguna: Euskara kalean gora

Oskar Elizburu

Udari jarraipena eman dion hilabete honetan euskararen aldeko ekimenek ere aurrera darraite eta hauei bukaera emateko edo, hor izango dugu urtero legez AEK antolatuko duen AEK Eguna. Aurtengoan Bizkaia aldera jo beharko dugu euskalzaleok, Portugaletara hain zuzen ere, gure bilgune izan nahi duen eta den jaia bertan ospatuko baita. Azkeneko urteotan AEK Eguna jaiak hartu duen indarra ukazina dugu, gero eta lagun gehiago biltzen dituelarik, giro apartan, euskara bultzatzeko giroan, jakina.

Iazkoa Donapaleun ospatu genuen, Iparraldean, baina halere milaka lagun biltzeko gai izan ginen. Hori horrela, nik ez dut zalantzan jarriko urriaren 26an dena gaudituko duguna eta zubi famatuaren

inguruan euskalzale guztiok bilduko garena.

Euskara kalean gora dugu aurtengo lema eta abestiak dioen bezala arituko gara kalean gora eta behera gurea den euskara aldarrikatzen, bultzatzen eta erabiltzen, zezenari adarretatik heldu behar zaioenez gero, erabilpenaren bideetik lotu eta aurrera atera beharko baitugu.

Jai erraldoia dugu honako honetan eta ideia txiki bat egin dezazuen, esan behar denetik izango dugula ondo

pasatzeko; era guztietako kale ekitaldiak, pailazoak, herri kirolak, bertsolariak, sardina jana, bertso bazkaria, txiste kontalariak, haur parkea, Super 1, karaokea... eta nola ez aipatu musika arloan izango dugun aukera bikaina, rock kontzertua Sasoi Ilunak, Latzen, Joxe Ripiau eta Pilt taldeekin, folk musika eta erromeria Ganbara, Junkera, Alaitz eta Mainerrekin, eta bukatzeko berbera Izotz taldearekin; dena goizeko 11etatik arratsaldeko 9ak ingurura arte.

AEK Eguna, jaia eta ospakizuna bada ere, ezin ahaztuko ditugu euskara arloan ditugun hainbat aldarrikapen, eta hori da bide batez egingo dena Portugaleten, lortutakoa ospatu eta behar duguna aldarrikatu. Eta zer eskatzen du bada AEK? Edozein euskalzalek eskatuko lukeena, ikasteko erreztasun osoa izatea, laguntzak behar den heinean banatzea, euskara Euskal Herri osoan onartzea, ofizialtasuna egiazkoa izatea, hizkuntz politika egokia diseinatzea...

Zatoz beraz gurekin Portugaletara, hau guztia lortzeko bidea jorratzera, AEKekin bat egitera eta jakina euskaraz bizitzera!

Jarriko dugun autobusean edota han bertan elkar ikusiko dugun segurantz, ikusi arte. Heldu euskarari geu gara garra eta!

Oskar Elizburu, Erdi-AEK euskaltegiko arduraduna da.

“Jaia eta ospakizuna bada ere, ezin ahaztuko ditugu euskara arloan ditugun hainbat aldarrikapen”

Monte taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37
I L E A
Ferrerias. 79 87 62

Plus Ultra taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTROA Iturriotz 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTROA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko kale, 37 ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10 ☎79 48 77

MASAILARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEdia Kontzeziño,2 ☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎79 53 63

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

REUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎79 72 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎79 44 22

astea bi hitzetan

■ Autoinkulpazio gehiago

Nahiz eta HBko mahai nazionalaren aurkako epaiketa geratuta egon, aurreko asteen bezala mobilizazio ugari joan den asteen. Ostegunean LABeko delegatuek antolatutako kontzentrazioa. ESK-CUIS eta Langile Komisioetako ezker sindikalak bat egin zuten deialdiarekin. Autoinkulpatuz Bake Epaitegian 20 sinadura aurkeztu zituzten. Ostiralean, berriz, Jarraik antolatutako borroka eguna, ikastetxe gehienetan greba eta manifestaldiak eguerdian eta iluntzean. Larunbatean, azkenik, enkartelada egin zen Seberon.

■ Tabernariak alkatearekin bildu

Tabernen ordutegi berria dela eta ez dela, Arrasateko

Ostalarien Elkarteko bost kidek bilera izan zuten alkatearekin ostiral eguerdian. Bilera bukatuta, ez zuten parte hartutakoek argitasun gehiegi eman nahi izan, baina esandako apurrerengatik pentsa daiteke ordutegi berria ez dela bere hortan ezarriko. Hilaren 23an Ostalarien Elkarteko partaide denek bilera izango dute Monterronen, Jose Mari Loiti alkatearekin berba egingakoa azaltzeko.

■ EAK 11 urte Arrasaten

Arrasaten eratu zela 11 urte bete direla ospatzeko, 130 lagun elkartu ziren pasa den zapatuan Alkartetxean egingako bazkarian. Aurretik meza izan zuten frantziskotarretan. Luis Etxeberriarteunek, Arrasateko EA alderdiaren lehendakariak, herrian alderdia estabiliza-

tuta dagoela esan zuen eta ospakizuna urteroko ohitura bihurtu dela. Arrasateko jendeaz gain, alderdiaren pertsonaia ezagunak bildu ziren Alkartetxean, besteak beste Inaxio Oliveri eta Jose Julian Irizar.

■ AHTren aurkakoek garapenaren alde

Euren gainean idazten edo berba egiten denean garapenaren aurka dagoen multzoa agertu nahi izaten dela salatuz, Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladakoek idatzia kaleratu zuten joan den asteen. Asanblada horren partaideek diotenez, eurak ere garapenaren aldekoak dira, baina ez dute uste Abiadura Handiko Trena eta Eibar-Gasteiz autopista moduko makroproiektuen alde egotea garapenaren alde egotea denik.

“ Fagor taldeak duela urte batzuk ekin zion nazioartera zabaltzeko prozesuari, eta bi lantegi ireki zituen, Marokon bata eta Argentinan bestea. Egungo aurrikuspenen barnean bide hori finkatu eta sendotzea dago, esportazioaren bitartez Hegoaldean lanpostu berriak sortzeko helburuarekin. (...)

Bere lehiakortasunari eusteko Fagor taldea kanpora begira dagoen bitartean, sektore bereko multinazionalak Euskal Herrian jarri dituzte begiak, bertan aurkitu baitute ekoizle sare garrantzitsua batetik, eta erraztasun fiskalak, bestetik. Horixe da Daewoo multinazional korearraren kasua”.

DANIEL UDALAITZ

Argia
1997-10-5.

“ Gustuko ditugun taldeak musika industrialekoak dira, baina gu oraindik ez gara maila horretara iristen. Ez dut uste zuzena denik esatea musika industrialeko talde bat garela. Batez ere, taldearen soinuarengatik. Musika industrialaren soinua oso berezia da: gitarra, ahots oso landuak... Lehen urrats honetan ez gara iristen hori egitera, agian hurrengoetan bai”.

BAD F-LINE

Euskaldunon Egunkaria
1997-10-2



KIROL TOPAKETAK OÑATIN

Kirol politikari buruzko Topaketak Oñatin zapatuan. Instituzioen laguntza gero eta txikiagoa denez, sponsorizazioaren premia nabarmen. Tailer praktikoa ere egin zen: Nola egin enpresen babesa lortzeko proiektu bat? Administrazioaren eta kirol taldeen ordezkariak zabala, baina enpresaririk ez.

PUB HAIZEA



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa ■ Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia ■ Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), aukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE



1998rako udal ordenantza fiskalak onartzeko plenoa

Datorren astelehenerako udalbatzaren bilkura berezia deitu da. Goizeko 9etan hasiko da plenoa eta beste gai batzuen artean, 98rako udal ordenantza fiskalak onartuko dira. Gai hori Hazienda batzordean aztertu zen, eta bertan finkatu da datorren urtean ordaindu beharko diren zergen eta tasen igoera. Aurtengo igoera orokorra KPIaren antzekoa izango da, %2,1 aren iguruan, baina astele-

henean plenoak onartu beharko du.

Ordenantza fiskalak onartzeaz gain, beste puntu batzuk tratatuko ditu udalbatzak. Gai zerrenda ez da behin betikoa, hala ere, seguruen jarraian aipatutako puntu denak eztabaidatuko dira. Hasteko, Lezetxikiko interes arkeologikoko gunearen babestea bermatzeko, hartu behar diren ondasunen zerrenda behin betiko onartzea pro-

posatuko da. Jubilatu etxe ezberdinen inguruko erabakiak ere hartuko dira: batetik Toki Argiko tabernaren ustiapena lehiaketa publikora ateratzea; bestetik, Uribarri, Musakola eta Abaroako zahar etxeetako kontzesionarioekin sinatutako kontratuen baldintzak aldatzea.

Bukatzeke, 97ko aurrekontuaren kredituak aldatzeko espedientea onartzea proposatuko da.

Jaiotzak

- Uxue Agirre Arriaran. Urriaren 3an.
- Alvaro Carmona Tamame. 10ean.

Hildakoak

- Marcelina Heriz Ezkurra. 92 urte. Urriaren 6an.
- Jose Barquero Barquero. 75 urte. 8an.

Parrokiak beste 20 milioi jaso

San Juan Bataiatzailaren Parrokiako obrak aurrera darraite. Hirugarren fase honetan, elizaren barrualdea konponduko da. Dagoeneko, obraren %20a egin da eta, Udalak obren Batzorde Eragilearekin sinatu zuen hitzarmenaren arabera, 20 milioiko kopurua ordainduko dio Parrokiari. Behintzat erabaki hori hartu zuen Gobernu Batzordeak bere astelehenerako bileran. Kanpoaldetik berrituta dago parrokia, eta orain barrualdean dabilta lanean.

Laubideko aparkalekuan OTA ezarri nahi da

Gobernu Batzordeak Laubideko ustiapen sistema aldatzeko proposamena aztertu du aste honetan. Udalaren asmoa, OTA ezartzea eta kontseziolak egitea da. Aparkalekuko lehen solairuan eta bigarrenaren zati baten txartelen bidez ordaintzeko makinak ipiniko dira proposamena aurrera era-

manez gero. Geratzen den zatia, partikularrei eskainitako kontsezioetarako utziko da. Sistema aldatzea datorren urteko urtarrilean martxan jarri nahi da. Dena den, OTAren arauak nahiz kontseziolak egiteko baldintzak oraindik finkatu barik daude, eta luze joan daiteke finkatze prozesua.

Ikastetxetan integrazioa lantzeko tailerrak

Joan den ikasturtetik, hainbat ikastetxetan eskolak integrazioan betetzen duen funtzioa aztertzeko dabilta Izadi gabinetek dinamizatutako tailerretan. Tailerrek oso harrera ona izan dute, eta dagoeneko 80 irakasletik gora pasa dira. Tailerrak Ergüin, La Merced eta San Andresen egin dira.

Prozesuari jarrapena emanez, orain bigarren fase bati ekin dio hainbat zentruk. Urriarri Lanbide Hastapena lehen faseko tailerrekin hasi da eta azaroan, Musakolako DBHkoak bigarren faseari ekingo diote. Tailerrek hezkuntza integrazioarako lagungarri bihurtu nahi du.

Zahar Berri: euskararen erabilera areagotzeko plana

AED, Udal Euskaltegia, eta Erdi-AEK euskaltegia euskararen erabilera areagotzeko proiektu bat lantzen dabil-tza, momentuz Zahar-Berri izenarekin bataiatu dutena.

Orain arte landu denaren arabera, motibazio saioak burutuko lirateke lehenik, euskaltegieta profesionalak bilduz planaren garrantzi-az jabetu daitezten. Behin motibazio lanari ekin eta gero, ikasleen ingurune hur-bila ezagutu nahiko luke Zahar-Berri proiektuak. Horretarako, euskaltegieta dabil-tzan ikasleei inkesta bat pasako zaie, bete dezaten. Aldi berean planaren berri ere emango zaie. Azaroan gara-tu nahi da asmoa.

Irakasleekin motibazio saioak eginda eta ikasleak ezagutu eta gero, asmoa bi programa martxan jartzea litzateke: bata *Mintza Laguna* izenekoa eta bestea *Mintzo Taldea* izena daramana. *Mintza Laguna* programaren arabera, bina eta hiruna lagun bilduko lirateke, ikasleak eta



Euskaldun zahar eta berrien artean bultzatu nahi da plana.

euskaldun zaharren bat tar-tean, berba egiteko helbu-ruarekin. *Mintza Taldea*, berriz, talde handiagoetan egingo litzateke eta berba egitera baino gehiago, kul-turgintzari begira.

Ikasleekin eta irakasle-ekin egin nahi den lanaz gain, *Zahar Berri* proiektuaren beste konpromezue-tariko bat euskararen kali-tatea zaintzea litzateke, eus-

kararen munduan dabilen askok eta askok eredu izan beharra duelako ikasten dabil-tzanen aurrean, ahalik eta euskara onena erabiliz. Arlo honetan, besteak bes-te, komunikabideetako lan-gileak aipatzen ziren. Itxu-ra baten euskaltegiak prest leundeke behar zehatzei neu-rriko erantzuna emateko, ikastaro trinko edo ordute-gi berezien bidez.

Euskadiko Kutxa munduko 50 onenen artean

The Banker aldizkariak 38. lekuan kokatu du Euskadi-ko Kutxa munduko 50 entitate onenen sailkapenean. Zerrenda egiteko orduan, *The Banker*-ek irabaziak eta kapitalizazioak hartu ditu kontuan, entitatearen kapitalaren eta aktibo osoaren arteko erlazioa atereaz. Horrela jakin ei daiteke zein entitate den garantia onena eskaintzen duena.

Estatuko hiru kutxa bes-terik ez dira agertzen aipatu-tako aldizkarian, eta hirurak Euskal Herrikoak dira: Eus-kadiko Kutxa, esan bezala 38. tokian, BBK 40.ean eta Nafarroako Kutxa, 44.ean. Sail-kapena egiteko, *The Banker* aldizkariak munduko ban-keixe guztiak aztertu ditu, eta gaur egungo banketxeen joe-ra nagusiak ere ondorioztatu ditu: kostuak murrizteko joe-ra, bategite prozesuak uga-ritzeko, eta alor berrietara zabaltzeko ahaleginak gau-zatzeko joera.

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

ZUHAITZ JATETXEA

Astelehenetan itxita

Afaria
eta
bazkari
onenak!

LEINTZ
GATZAGA

Tel.: 71 46



ERRASTI KRISTALDEGIA


Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

Asteazken honetan Mondragon Unibertsitatearen inaugurazio ofiziala

Ikasturtea irailarekin batera hasi bazen ere, Mondragon Unibertsitatearen inaugurazio ofiziala datorren asteazkenean egingo da.

Inaugurazio ekitaldia 1997-98 ikasturtearen datuak emanaz hasiko da, beherago irakurri ahal izango dituzuen datuak. Gero omenaldia egingo zaie Mondragon Unibertsitatearen laguntzaile izan diren batzueri, eta segidan inaugurazio hitzaldia: "Kontrol automatikoa, industriaren garapenerako eragilea". Ander Echeverriak emango du, Goi Eskola Politeknikako irakasle doktoreak. Ikasgaia bukatutakoan, Inazio Lakuntzak hartuko du hitza, Mondragon Unibertsitatearen errektore moduan. Errektoreari Jose Antonio Ardanza Lehendakariak hartuko dio txanda. Aipatutakora arte ekintza akademikoa, eta hortik aurrera Goikobalu abesbatzaren ekitaldia eta luntxa. Aipatutako guztia Amaia antzokian egingo da.



2.300 ikasle aurtengo ikasturtean.

UNIBERTSITATEAREN DATUAK

Enpresaren garapenera eta formaziora zuzendutako Mondragon Unibertsitate kooperatiboak, 2.300 ikaslerekin ekin zion ikasturteari, Mondragon Eskola Politeknikoan, Oñatiko ETEOn eta Eskoriatzako Irakasle Eskolan banatuta. Mondragon Eskola Poli-

teknikoan, arlo teknologikoa lantzen dabilta, honako ikasketak hauek: Antolakuntza Industrialaren Injinerutza, Automatika eta Elektronika Industrialaren Injinerutza, Injinerutza Tekniko Industrial Mekanikan espezializatua, Injinerutza Tekniko Industrial Elektronika Industrialean espezializatua, Informa-

tika Sistemen Injinerutza Teknikoa, eta Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa. ETEOn bi hauek: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura, eta Zientzia Enpresarialeten Diplomatura. Azkenik, Irakasle Eskolan beste bi: Humanitateak-Enpresa Lizentziatura, eta Irakaskuntza titulua, haur hezkuntzan, ingeles filologian, edo hezkuntza berezian. Ikasketez gain, aukera desberdina dute bertan dabiltzan ikasleek, euren proiektuak ikerketa zentroetan garatu ahal izango dituztelako eta ikerlarietara eman ahal izango dituztelako unibertsitatean. Akademikoki Madrilgo orientabideetara egokitu behar izan duen arren, bere lizentziatura eta diplomaturak banatu ahal izango ditu.

Datorren urteari begira eta aurtengo gauzak nola joan diren ikusita, 3.000 ikaslelik gora izatea espero dute Mondragon Unibertsitatearen arduradunek.



Ihardun
multimedia
k o o p . e .

Santiago kalea, 12
20530 Leintz Gatzaga (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (34) 43 71 46 37
Faxa.: (34) 43 71 30 03
e-mail: sarrera@ihardun.com

ESKUZ
Larruzintza

Pilar kalea, 9
Leintz Gatzaga
Tel.: 71 41 54

GYRE AMETSA

JATETXEA

Leintz Gatzaga
Tel./Faxa:
71 49 52






NOLA IGAROTZEN DIREN URTEAK

Dagoeneko 25 urte igaro dira Marilu Ajuria eta Iñaki Zeziga ezkondu zirenetik. Aurten beraz, zilarrezko eztaiak ospatzea egokitu zaie. Urriaren 7an Mariluk eta Iñakik berriro errepikatu zuten 1972an egindako ezkontza. San Pru-

dentzioko elizan meza. Elizkizuna bukatuta lagunak kanpoan zain zeuden arrozarekin bikotearen lotura ospatzeko. Ondoren bazkaria bertako elkartean. Falta izan zaien bakarra ezkon-bidaia. Mariluk eta Iñakik ez dute nahikoa izan



behin ezkondua eta bigarren aldiz errepikatzera ausartu dira. Hori bai maitasuna!

Arrasatearrok ez ginen konturatu, baina Maritxu Kajoik bi mirari egin zituen aurtengo ospakizunean. Bata, denok ikusi genuena, astoa eta dragoia adiskidetzeara.

Bestea, Izaskun Olaizolaren lagunak kontatu digutena:

Izaskunek berak ezkontzeko erabakia hartzea. Ezkontza urriaren 25ean izango da.

Lagunek nola ez, despedide egingo diote Izaskuni zapatu honetan. Onde pasa eta urte askotarako izan dadila Eskerrak eman beharkodionobixuak kajoike amabirginari.

AZKENEAN EZKONDU!



EUSKO ALKARTASUNAK 11. URTEURRENA OSPATU

Marmitakoa lehenengo, labean erretako saiheskia bigarreneko, gazta-tarta postrean, eta gero gero-koak, horixe EAren 11. urteurreneko ospakizunetan Alkartetxean bildutakoek jan zutena. Esan beharrik ez dago horrelako menua izanda, ondo

baino hobeto geratu zirela denak. Luis Etxeberriarteunek, Arrasateko EAko lehendakariak esan zigunez osasuntsu ei dabil EA alderdia Arrasaten. Ez da harritzekoa, horrelako bazkariak egiten badituzte ez dira ba egongo!



IZENAK

Goiko Balu

Goikobalu abesbatzak junta berria dauka. Jabi Arizabaleta izango da lehendakaria datozen bi urteetan. Lehendakariordea, Tere Conde. Eta bokalاک, Tomas Aspe, Moises Olalde, Javi Egaña, Izaskun Altuna, Isabel Gallastegi eta Tomasi Aranguren. Diruzain lanetan, Joxe Zuazubiskarek jarraituko du.

Rent a Car

Alkilerreko autoak.

Eta orain

TRAFIC eta EXPRES

MECA

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

PAILAZOAK AMAIAN


Abade posturan ikusten dugu sarritan Dabid Errasti atxabatarrak ETBko Goenkale saioan. Pasa den astean, berriz, habitoa alde batera utzi eta pailazo piuran agertu zen Amaia antzokian. Lanbide biak ei dira Jaungoikoak bedein-katutakoak!



ZORIONAK ALBERTO ETA MARI KARMEN!

Alberto Garro lankide ohia eta Mari Karmen Pardo ezkondu zitzaizkigun joan den larunbatean. Ezkontzarena ez da tragu ederra izaten, baina bikote honek marka guztiak apurtu ditu. Etxetik irten eta bide erdian konturatu lore-

sorta falta zaiela, buelta erdi eta berriro mar-txan. Arantzazura iritsi eta zer gertatuko? eraz-tunak falta, eskatu egin behar. Hortik aurrera primeran joan zaizkien gauzak, eta orain hobeto ibiliko dira Costa Rica aldean.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE




Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...



LORAMENDI

*arroparik
berriena
zuretzako
prest!*



Ideien iturria zabaldu eta azken urteetan enpresa eta proiektu ezberdin asko jarri da martxan Leintz Gatzagan. Bertako gaztetxoek badute etorkizunik.

Leintz Gatzaga: garapenaren iturria

Ertaroko hirixkaren itxura gordetzen duen Leintz Gatzaga Deba Garaiko azken mendia-
ren maldetan zintzilikatzen da. Lurralde aldapatsuan, hainbat lurjausi eragin zituen 70. hamarkadaren bukaerako urteetan. Gutxinaka gutxinaka, etxe asko brintzatu eta herria hondatu zen. Kalte materialak nabarmenak izan ziren, eta gainbehera orokorra izan zela esan daiteke.

Lurrarekin batera, etxe asko eta frontoia ere maldan behera etorri ziren urteetako mugimenduen eraginez. Exodo prozesu baten sartu zen orduan herria eta jendea etxeak eta baserriak husten inguruko herrietara joateko. Etxeak eta biztanlegoa zahartuta, Gatzagaren aldapari eustea nekezago bihurtu zen. Biztanlegoak beharantzako joesa hartu zuen. 60. hamarkadan 400 bizilagun inguru zeuden eta 82. urtean 200 bakarrik, izandakoaren erdia bes-

terik ez. Orduetik, herria berpizteko egin den ahalegina ez da nolanhikoa izan, baina pena merezi izan duela begibistan dago.

ZAHARRA BERRITZEN

1986an herria berreraikitzeke planari ekin zion Gatzagak Udalak. Konponketa lanekin hasi baino lehen, herriko maldaren irristadurari eusteko azterlana egin zen. Malda finkatzeke ekinaldi ugari egin zituen aldundiak, eta azkenean, nasa baten bidez eutsi zi-

tzaion lurrari. Gero, herriko zenbait eraikuntza garrantzitsu konpondu zen. 87an, bost urte itxita zeramatzan Dorletako Santutegia berrinauguratu zen Garro jauregiarekin batera. 89an Udaletxea, frontoia, plaza, eta garageak berreraiki eta argindarraren instalazio berria ere jarri zen. Ekimen pribatuén bidez, etxe zahar asko berreraiki zen. Poliki poliki, Gatzagak oinarriak sendotu eta aurpegia garbitu zituen. Gaur egun, herriko %80a dago berri-tuta, eta beste %20a, tartean eliza, indiano etxea, txileno-

ena eta beste hainbat, berritze prozesuan.

ETORKIZUNA LANTZEN

Gatzagako Hautesleen Elkar-
tea da herria gestionatzen duen
alderdi independentea eta
Eugenio Otxoa alkatea. Eugeni-
niok ederki definitzen du orain
hamar urte-bera alkatetzan sar-
tu zen momentua- herriak bizi
zuen egoera. "Herriko etxeak
erortzen zeuden eta jende gaz-
teak alde egiten zuen. Ez zuen
inork herrian bizitzeko gogo-
rik". Une horretan, Udalak
lurra erosi zuen, jausitako etxe-
bizitzak bertan berreraikitze-
ko. "Gure helburua, gatzaga-
rrei herrian jarraitzeko auke-
ra ematea zen. Nolabaiteko
erraztasunak ematea, kanpo-
ra ez joateko. Bestalde, baila-
rako jendeari Gatzagara bizi-
tzera etortzeko aukera eman
nahi genion eta babes ofizia-
leko etxebizitzak egin geni-
tuen". Udalak ez zuen nahi kon-
ponketa lan hutsa gestionatzea,
helburu sakonago baten lor-
penean ipini zuen bere ahale-
gina. "Bizi poza falta zen
herrian. Bizi baldintzen hobe-
kuntza eta biztanlegoari eus-
tea denon eginkizuna bihurtu
zen". Lan honek bere emaitzak
ekarri ditu, eta gaur egun, 250
biztanle inguru dira. "Exodoa
geldiaraztea lortu dugu eta
gainera, babes ofizialeko etxe-
etara inguruko jende asko eto-
rri da, batez ere gazteak. Alka-
teak kenduta, denek seme-ala-
bak dituzte" bromeatzen du
Eugeniok. BERPizkunde honen
atzean, gatzagarrei bizi auke-
ra ezberdinak zabaltzen diz-
kion garapen osoko plana dago.

NEKAZAL GARAPENERAKO PLANA



"Herriaren beharrak aztertze-
ko asesoria batengana jo
genuen -gogoratzen du Euge-
nio Otxoak- eta azaleko azter-
keta bat egin eta gero, 1.000
milioiko inbertsioarekin



herrian zeredo zer egitea baze-
goela esan ziguten. Horretara-
rako ez da larregi pentsatu
behar, beraz gure aldetik hasi
ginen irtenbideak bilatzen".

1331. urtean sortutako
herri honek, badu baliabide-
rik. Herriaren ezaugarrietan
oinarrিতта (erdi aroko hirix-
karen itxura, gatz fabrika,
artisautza, nekazaritza eta


ingurunea) guztiak lotzen
dituen garapen plana martxan
da. Enplegu ekimen lokalak
bultzatuta, lehen eta hiruga-
rren sektorean lan egiten duten
enpresa ezberdinak abiatu dira.
Nekazal gunea indarberritzea
eta herriaren interes historiko
eta kulturala birbalarizatzea
dira plan integral horren hel-
buru nagusiak.



Goiko argazkietan herriaren
egoera tamalgarria 80. hamarka-
dan. Beheko argazkietan Leintz
Gatzagak gaur egun erakusten
duen aurpegi berritua. Aldamene-
an, Eugenio Otxoa herriko
alkatea.

Ez da lan makala, baina
orain arte egindakoak bere
fruituak eman ditu. Enpresa
ezberdinen funtzionamenduak,
etorkizunean garatzeko proiektu
ezberdinak eta ingurune
ederreko herri txukuna izateak,
bizipoza itzuli die Leintz
Gatzagako kalei. ■

Marian Porcel



*“Bizipoza falta zen
eta exodo prozesuan
baten sartu zen
herria. Bizi
baldintzen
hobekuntza eta
biztanlegoari eustea
denon eginkizuna
bihurtu zen”*

EUGENIO OTXOA
Leintz Gatzagako alkatea

Azken urteetako lanbide ekimenak

Leintz Gatzagan, aipatutako nekazal garapen planari esker, ekimen enpresarial ugari jarri da martxan; batzuk Udalak bultzatuta, beste batzuk Udalaren laguntza jaso duten gestio pribatuak. Hurrengoak, Udalaren lanbide ekimen lokalak bultzatuta sortutakoak:

■ JAKION, NEKAZAL ELABORAZIO ZENTRUA

Udalaren ardura baserritarren errenta igotzea izan da, belaunaldi berriek baserriko lanekin ez jarraitzeko arriskua ikusten zelako. Jakionen baserriko produktuak eraldatu eta kontserbatzen dira, baserritarrei azpiegitura eskainiz. Momentuz, bost eta zazpi langile artean lan egiten dute eta inbertsioa 17 milioikoa izan da.

■ GAZTAINUZKETA, BASERRI OSTATUAK

Nekazal turismoko lojamenduen hutsa betetzera etorri da Gatzainuzketa. Erakarrirako turismoak, beste zerbitzuetan eragin onuragarria izango duela uste da. Udalak promozionatu eta 20 urteko adjudikazioa egin du. Inbertsioa 90 milioikoa izan da.

■ ARTISAUTZA

Ertaroko hirixkak erakar dezakeen turismoari, (urtero ere, artisau feria ospatzen da) artisautzak eskaintzen die herriko bi tailerrek. **Loyur** tailerrak keramikazko artisautzak elaboretzen du eta **Eskuz** tailerrak larrugintza. Bakoitzak bi langile ditu.

■ DORLAS, MENDI GARBIKETAK

Baso ustiaketarako kooperatiba da. Mendiak garbitu eta sasiak kentzen dituzte. Denboraldiaren arabera, 4 edo 10 lagun egon daitezke lanean.

■ S.M.G.

Erreaktibo immunologikoak komertzializatzen duen kooperatiba. Enpresetako azterketa medikuak ere egiten dituzte. Hiru langile du kooperatibak.

■ IHARDUN MULTIMEDIA

Ekimen pribatua da baina Udalarekin elkarlaneko hitzarmena sinatu du. Enpresa honek formaziora zuzendutako bideo eta produktu multimediak ekoizten ditu.

Osoko garapen planaren barruan, beste mota bateko ekimenak aipatu behar dira, eta bide batez, hurrengo urteetan garatu nahi diren proiektuak.

■ MENDI IBILBIDEAK

Bide motzeko hainbat ibilbide prestatu ditu Udalak, seinalizatuta eta atsedan lekuak jarri. Ibilbideetan, Deba eta Arlaban ibaien jaiotzak, karobiak (karea egiteko labeak) eta Leintz Gatzagako baso ikusgarriak ezagutu daitezke.

■ DORLETAKO SANTUTEGIA

Txirindularien patroia dela eta, jende ugari joaten da bisitari. Turismorako deigarria.

■ MENDIAK

Mendia birsortzeko programa bat eramango du aurrera Udalak. Leintz Gatzagako mendia oso aberatsa da pago eta haritzetan eta %80a baino gehiago Udalarena. Aralar bezalako ingurunea lortzea da helburua, basoa birsortuz eta lehenengo toki batzuk berreskuratuz: fruitarbolak, gaztaina eta mispila lekuak... 125 urteko prozesua izango da.

■ GATZAREN EKOMUSEOA

Bi urteko epean gatz fabrika monumentua berreskuratuko eta museoa egingo da.

■ SORAN JAUREGIA

Balore kultural eta historiko handienetarikoa da. Turismo industrialaren etorrera opa dela eta hotel bihurtzeko asmoa dago. Momentuz, berritze prozesuan dago.

Mondrako Infantilen entrenatzailea

DABID ZAITEGI

Futbol jokalaria, futbitoan atezain eta orain entrenatzaile

— **Noiztik entrenatzaile Mondran?**

— Joan zen urtean Ibai Madariagari laguntzeko sartu nintzen. Infantilekin entrenatzen aurten hasi naiz.

— **Mondrako gazteenak entrenatzen dituzu, gogorra egiten da?**

— Hasieran beharbada bai, ez dakite futbol zelaian kokatzen eta oinarritzkoa ondo erakusten saiatu behar da. Astean hiru egunetan entrenatzen dugu: asteartetan eta ostiraletan ordubete eta asteazketan ordu t'erdia. Kirol proiektuan era guztietako kirolak egiteko aukera dutenez, gure entrenamenduak futbolekin oinarritzen dira.

— **Nola dabilta infantilak?**

— Ohorezko mailan jokatzen dute. Maila sendoa da eta orain arte nahiko ondo gabilta. Kanpoan neurketa bat galdu dugu eta bestea berdindu, etxean guztiak irabazi. Datorren asteburuan partidu garrantzitsua izango dugu Bergararen kontra.

— **Entrenatzaile batek zer behar du infantilak entrenatzeko?**

— Lana gustora hartzea eta gogoz ibiltzea. Horrez gain, umeak edo gazteak tratatzen jakitea. Normalean ez da arazorik egoten, baina egonez gero, erantzuten jakin behar da.

— **Zaldiba-**

rren Irati STS taldean atezain eta Atxalpen entrenatzaile, non gustoren?

— Entrenatzen askoz hobeto. Betidanik gustatu zait futbola eta baita mutikoekin ibiltzea ere. Entrenatzaile lanak gauza biak eskaintzen dizkit.

— **Aurrerantzean goiko mailako entrenatzaile ikusten duzu zure burua?**

— Jubenil mailako tituloa ateratzen nabil, baina entrenatzaile lana niretzat afizioa da, ez dut bestelako asmorik.

— **Futbolarekin harreman zuzena dute Zaitegitarrek?**

— Bai lau anaia gara eta denak izan gara futbol jokalaria. Ama batzutan haserretu egiten da, baina tira. Orain Realean anaia gaztea dago.

— **Eskatzen dizkizu aholkuak?**


— Realean nahikoa aholku jasotzen du. Batzutan jokaldi hori edo bestea ondo egin duen esaten dit eta nik iritzia ematen diot.

— **Dabid urte askotan izango dugu entrenatzaile?**

— Oraingoz bai, gustora nago eta jarraitzeko gertu.



ESKUBALOA Botika magikoa ezin bilatu




Arrasate eskubaloia taldea ezinean dabil denboraldia hasi zenetik. Hiru neurketa jokatu eta guz-

tiak galdu ondoren, puntu barik dago sailkapeneko zuloan. Egia esateko taldea gogoz dabil, baina neurketetan ezin du hori isladatu. Taldean ez dago liderrik erantzunkizuna hartu behar denean hartzeko, partidua nahasten denean urduri jarri eta berehala etortzen dira behera. Horrela zaila da aurrean dagoena gainditzea. Zapatu honetan gaur arteko egoera aldatzeko beste aukera bat izango dute, Iturripen arratsaldeko 6etan. Ereintza izenez aurkari handia da, baina sailkapenean ez dago ondo kokatuta. Puntu bakarra dauka bi partidu galdu eta bat irabazi ondoren.


SASKIBALOA Aldatz behera taldea

Hasi ondo, baina jarraitu ez.



Arrasate saskibaloia taldeak bi partidu galdu ditu jarraian, beraz bi asteburutan sailkapeneko zulora jeitsi dira. Oraindik erritmoa hartzea falta zaie, baina batez ere lesioengatik izan duten jende murrizketa igerri dute partiduetan. Datorren zapatuan Atletico San Sebastian taldearen kontra neurtu beharko dituzte indarrak Donostiako Bera Bera kiroldegian. Partidu horretarako bi baja egongo dira: Iker Errasti, meniskoa ikututa duelako eta Iker Letona, orkatila ez zaiolako guztiz sendatu. Azken horrek beharbada Donostiara joango den arren, minutu gutxi jokatu ahal izango du.

RUGBYA Denboraldiko lehen partidua

 Rugbylariek joan zen astean denboraldiko lehen neurketa jokatu behar zuten, baina Mungia aurkaria ez zenez aurkeztu jokatu barik lortu zituzten puntuak. Zapatuan berriz, jokatu egin beharko dute eta duten onena ematen saiatu Getxori irabazteko. Garagartzan arratsaldeko 4etan hasiko da partidua. Taldean Arkaitz Iburguen da baja. Horrez gain, aurten ere Iban Agirreurreta Potato izango da taldeko kapitaina. Zapatuan egin zuten aukeraketa eta Potato eskuratu zituen boto gehien.

“Peña Bomba” asteazkenean estreinatu zen Anoetan


Arrasateko Peña Bomba ofiziala egin zen martizenean. Eguaztenean berriz, lehen neurketara joan ziren Anoetara. Real eta Celta partidua animatzen ibili ziren arrasatearrek. Peñakoak Realak etxean jokatzen dituen partidu guztietara joango dira eta baita kanpoko batzuetara ere. Aitor Lopez Rekarteren alde sortu den taldea berria izan arren, 145 bazkidetik gora ditu. Zuzendaritza batzordean 10 lagun daude eta presidentea Saul Osinaga da. Bestalde datu moduan esango dugu Peña Bomban bazkide egin direnetik, 45 lagun Realeko bazkide ere egin direla.



Peña Bombakoak autobusean joango dira Pealaren partiduetara.

Hemendik aurrera Aitor Lopez Rekartek eta Realeko jokalariek beste laguntza bat izango dute harmailetan, Arrasateko Peña Bombakoek emango die.

FUTBOLA Aurreneko postuan sendo

 Joko onegia egin barik baina partiduak irabazita, preferente mailako Mondra 6. ihardunaldia jokatu denean 3. postuan kokatu da 13 punturekin. Bere aurretik Aloña Mendi dago puntuz parekatuta, eta liderra Eibar da, 15ekin. Jesus Mari Barrutiabengoak gidatzen duen taldeak lau neurketa irabazi ditu gaur arte, 10 gol sartu eta bakarrik 3 jaso. Une honetan taldeko pitxitxia Aritz Arabiourrutia da 3 golekin, Gorka Otxoak eta Agustin Callejak bina sartu zituzte. Gol bakarraz, Beñat Apraiz, Asier Luengo eta Oscar Santor. Datorren domekan Mondrak Rotetaren bisita jasoko du Atxabalpen arratsaldeko 4.45etan. Bide onetik jarraitzeko garaipena behar nahi eta nahiez. Mondrako emakumezko taldeak atsedena izango du asteburu honetan.

Santamas txapelketa eta taldeen artekoa pilotarientzat

Gipuzkoako taldeen arteko txapelketako bi partidu jokatuko dituzte Arrasateko pilotariek. Kadeteek ostiralean gaueko 9etan Soraluzen izango dute zita, Dominguez eta Etxeandia izango dira herriko ordezkariak. Seguran eta ordu erdi beranduago Osinaga eta Zuazubiskar seniorrek neurtuko dituzte indarrak. Zapatu arratsaldean Aretxabaletako txapelketan izango dira. Eskuz banaka Zuazuak Bergarako pilotaria izango du aurrean. Eskuz binaka Rodriguez Ieta Uribarrenen etsaiak oñatiarrak izango dira.

Zapatuan bai goizean eta baita arratsaldean ere Santamas txapelketako partiduak jokatuko dira Iturripen maila desberdinetan.

Larunbata, Iturripen goizeko 10.30etan

Infantilak

Bergaretxe - Urkia
Belastegi - Agirre

4 t'erdia barruan

Juniorrak

Miranda I - Aroztegi
Belategi - Lazkano
Ormaetxea - Miranda II
Alzelai - Llodio

Larunbata, Iturripen arratsaldeko 4etatik aurrera.

Infantilak

Belastegi - Bergaretxe
Salegi - Etxebarria
Zabaloa - Balzategi
Mertxan - Lezamiz
Aspe - Masip
Arroiabe - Agirre
Ugarte - Carrillo
Arriaran - Jimenez I



Zalbibar txapelketa erritmoa hartuz

Laburrak

■ IZEN ALDAKETA

Bigarren ihardunaldian lehen izen aldaketa eman da Zaldibarren. Nationale Nederlanden hemendik aurrera Aldibi izango da.

■ EPAILEA BERANDU HELDUZ GERO!

Epailerin bat partidua epai-

tzera berandu heltzen bada, bere taldeak jarritako fidantza galduko du. Adi arau horrekin, despiste bat izatea ez da hain arraroa izaten eta.

■ NORGEHIAGOKA INTERESGARRIENAK

Hirugarren ihardunaldian lau neurketa gomendatuko ditugu

beste guztien artean. Zapatuan Zaldibarren jokatuko diren Borrock Roll-Txeyenex eguerdiko 12etan. Arratsaldeko 5etan jokatuko den Naranja Mekanika-Lorategi eta 6etako Aldibi-Los Heredia. Domekan eguerdiko 12etan Ac surcos eta Argi Ibilizango dira lehiak.

■ GOL GUTXI FUTBITORAKO

Futbitoan ez da ohikoa gol bakarra sartzea. Joan zen astean bi neurketetan gertatu zen aipatutakoa. Pipwhis eta Gabelasen arteko neurketa 1 eta 0 bukatu zen Piwhisen alde. Jako al rey taldeak berriz, gol bateko aldeaz irabazi zion Rotor de Bolbogradari.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Saikapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	2	2	0	0	14	3	4
AC surcos	2	2	0	0	12	4	4
Pipwhis	2	2	0	0	8	2	4
Tamagotxi	2	2	0	0	9	7	4
Nuevo taberna	2	1	1	0	9	8	3
Sokoakoak	2	1	1	0	4	3	3
Branka Taberna	2	1	1	0	8	7	3
Jotakabau	2	1	1	0	6	2	3
KKjauri	2	1	0	1	5	7	2
Ganbelas	2	1	0	1	7	4	2
Ke oxtias	2	0	2	0	2	2	2
Leya	2	0	2	1	10	11	1
Potrosorri	2	0	1	1	5	6	1
Babajana	2	0	0	2	3	8	0
Garaje Oscar	2	0	0	2	7	9	0
Nacex	2	0	0	2	3	10	0
Cartonajes Igamo	2	0	0	2	3	10	0
Onaniereng	2	0	0	2	5	16	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	2	2	0	0	11	2	4
Zotz	2	2	0	0	10	1	4
Irati STS	2	2	0	0	7	5	4
Fraguel gol	2	1	1	0	6	3	3
Betrayer	2	1	0	1	10	6	2
Rotor	2	1	0	1	8	3	2
DKB	2	1	0	1	6	9	2
Ainarexia	2	1	0	1	11	7	2
Jey Hooligans	2	1	0	1	4	4	2
DA Iriztu	2	1	0	1	11	6	2
Pepelus	2	1	0	1	9	5	2
Arrogoi tab.	2	1	0	1	7	5	2
Jako al rey	2	1	0	1	2	6	2
Lautherbrunnen	2	1	0	1	6	10	2
Komando alpar.	2	0	0	2	5	12	0
Bukanak	2	0	0	2	6	17	0
Sobred. de claro	2	0	0	2	2	12	0
Epeh	2	0	0	2	2	10	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Totem	2	2	0	0	17	2	4
AT Celaya	2	2	0	0	9	3	4
Naranja Mecanica	2	2	0	0	15	4	4
Txontxongilo	2	2	0	0	12	4	4
Koka Juniors	2	1	1	0	10	7	3
Lorategi	2	1	0	1	10	6	2
Los Heredia	2	1	0	1	6	7	2
Makai	2	1	0	1	6	13	2
Aldapa tab.	2	1	0	1	5	6	2
Aurrera Bolie	2	1	0	1	8	8	2
Borroch roll	2	1	0	1	7	15	2
Aldibi	2	1	0	1	7	6	2
Iluna tab.	2	1	0	1	8	8	2
Kamasutra	2	0	1	1	7	12	1
Etxemobel	2	0	0	2	3	9	0
Elisabeth	2	0	0	2	4	9	0
Insert Coin	2	0	0	2	4	9	0
Txeyenex	2	0	0	2	3	10	0



BAT, BI, GORA, BEHERA. Aerobica egiten dabilela eman arren, futbitoan ari da. Dena dela, batzutan gol bat sartzeko edo saiakera bat egiteko denetik egin beharra dago. Futbitoan auskalo, baina aerobic-ean etorkizuna izan deza-keela ikusten zaio. Probatzea da mutil!

Emaitzak

A taldea

Ke Oxtias 1 - Sokoakoak 1
Jotakabau 5 - Babajana Sexy 1
Onaniereng 3 - Ac Surcos 8
Argi Ibili 6 - Cartonajes Igamo 1
Pipwhis 1 - Ganbelas 0
Kk Jauri 3 - Nacex 0
Nuevo taberna 7 - Leya 7
Garaje Oscar 6 - Tamagotxi 7
Potrosorri 4 - Branka Taberna 4

B taldea

Pepelus 8 - Komanado alpargat 3
Jey Hooligans 2 - Irati STS 3
Epeh 1 - Orlando Piratas 3
Betrayer 2 - lautherbrunnen 5
Jako al rey 1 - Rotor de Bolb. 0
Zotz 4 - Sobredosis de Claro 0
Ainarexia 0 - Fraguol Gol 3
Bukanak 2 - Arrogoi taberna 6
DKB 3 - DA Iriztu 8

D taldea

Txontxongilo 4 - Aldapa taberna 2
Aurrera Bolie 6 - Etxe mobil 1
Borronck Roll 5 - Lorategi 4
Naranja Mecanika 4 - Txeyenex 2
Totem 11 - Makai 2
Iluna Taberna 5 - Elisath 2
Koka Juniors 6 - Los Heredia 3
Kamasutra 3 - Natonale Ned. 7
AT Celaya 6 - Insert Coin 3

Aldibi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

Larunbata Urriak 18

Zaldibar

8.50 Jako al rey - Sobred. de Claro
10.00 Ke Oxtias - Babajana Sexy
11.00 Jotakabau - Sokoakoak
12.00 Borroch Roll - Txeyenex
13.00 Kamasutra - AT Celaya
14.00 Arrogoi Taberna - Fraguol Gol
15.00 Totem - Elisabeth
16.00 Bukanak - DKB
17.00 Naranja Mecanika - Lorategi
18.00 Aldibi - Los Heredia
19.00 Tamagotxi - Leya

Iturripe A

13.00 Onaniereng - Cartonajes Igamo
14.00 Pepelus - Irati STS
15.00 Garaje Oscar - Potrosorri
16.00 Aurrera Bolie - Aldapa taberna
17.00 KKjauri - Ganbelas
18.00 Ainarexia - DA Iriztu

Iturripe B

13.00 Pipwhis - Nacex
14.00 Jey Hooligans - Kom. alpargat
15.00 Iluna taberna - Makai
16.00 Epeh - Lautherbrunnen
17.00 Nuevo tab. - Branka taberna
18.00 Betrayer - Orlando piratas

Igandea, Urriak 19

Zaldibar

10.00 Txontxongilo - Etxe Mobil
11.00 Koka Juniors - Insert Coin
12.00 Argi ibili - AC Surcos
13.00 Zotz - Rotor de Bolbogrado

PAKO ROBLES (PRESO OHIA)

“Ez dut ezer galdu, denbora”

Ia arbola bakar bat ikusi barik pasatu ditu Pako Roblesekin bere bizitzaren azken 16 urteak, kartzelaz kartzela. Kartzelaren egunerokotasunaz aske, baldintzapean bada ere, bere herrira bueltatu eta familiaren ondoren bizi berri bati ekiteko prest ageri da.

- 16 urte kartzelan...

- Zelakoak? onak, txarrak, okerragoak... gogorra. Orain hemen egotea ere gogorra egiten zait, barruan norberarekin daudenean zaude, egunero errepresioa jasotzen dutenekin. Berria ez litzateke izan behar Pako kalean dagoela, Pako moduan kalean egon beharko luketen 600 preso oraindik barruan daudela, hori da notizia.

- Zein esperantza izan duzu denbora horretan?

- Zuzena uste dugun zer baiten aldeko borrokan pasatu dugu etapa bat, egun batean norbaitek argitasun apur bategaz, irtenbide batera iristeko eman behar diren pausuak emango dituelakoan. Irtenbidea mundu denak daki, jarri eta arazoa konpondu, arazoak konpontzen diren moduan. Ezin da beste irtenbiderik egon, sufri-mendua luza-tzea besterik ez dakarrelako.

- Beherakadarik?

- Ez ideologikoki. Gartzelak sinisten duzun hortan berrindartzen zaitu; hala ere, beherakada emozionalak egoten dira. Batzuk etsi egiten


dute, gartzela gogorra da eta. Horren aurrean ezer gutxi esan daiteke, nahiz eta uste jarrera berekoi eta indibidualak direla.

- Gartzelako bizitzara ohitzen zara?

- Errutina da gartzela, egunero gauza berdinak ordu berdinetan... toki batzuetan txistukatuz deitzen dizute eta beste batzuetan zaplada batez, horrek aldatzen du.

- Eta errutinari aurre egiteko?

- Apurtzen saiatu, bestela gartzelak irentsi egiten zaitu. Ikasketak, kirola, eskulanak, ahal den bakoitzean lagunekin paseatu... errutina



“Errutina da gartzela, egunero gauza berdinak ordu berdinetan... toki batzuetan txistukatuz deitzen dizute eta beste batzuetan zapladaz, horrek aldatzen du”

ora hori nigan dago”

apurtzeko moduak dira. Kontua da gartzela askotan ezin dela horrelakorik egin.

- Jende gaztea eta berria gartzelara iristen denean, zer sentitzen da?

- Berri bat sartzen denean bera izaten da nobedadea, kaleko berriekin datorrelako. Gerturatu egiten gara, komisaldagian nola joan zaion jakiteko. Eta lagundu egin behar zaio, gartzela jakin horretan gauzak zelakoak diren azaldu.

- Preso ohi askok traslaoen gainean egiten du berba, duten arriskuaz. Zu sarri aldatu zaituzte gartzelaz, arazorik izan duzu?

- Tentsioa beti eta baita arazoren bat edo beste ere. Eskuak atzean esposaz lotzen zintuzten, autobus osterera eraman eta jipoi galantak ematea arrunta zen sasoi batean, eta oraindik toki batzutan ere normala da. Puertotik Leonera nenkarrela,

Zamoran horrelako zerbait gertatu zitzaidan, baina hirugarren bat tartean sartu eta ez zen hain larria izan. Beste gartzela batzutan, berriz, ailegatu eta segituan egiten dizute pasiloa.

- Horrelakoetan zerbait esaten dizute?

- Denetarik... ostikadak, ukabilkadak, porrekin guntzurrunetan eta saihetsetan... eta lurrera eroriz gero okerrago, denak gainera. Niri, Zamorako hori alde batera, ez zait ezer gertatu, baina ikusi ditut more more egindako lagunak, ubelduraz beteta.

- Ingurukoek nola bizi izan dute gartzelarena?

- Marijek nik bete dudan zigor bera edo okerragoa sufritu du, milaka kilometro eginez. Bera kondenatu dute, semea, lagunek... beste zigor bat bete dute, nahiz eta zer ikusirik ez izan nik egindakoarekin.

- Bueltatu zara herrira.

- Galduta. Oso handia, dena aldatuta. Oraindik aterrizatu barik. Herria berrezagutzen hasi naiz, baina oraindik pausu gutxi, semearen bila joan, paperak prestatu... ezinbestekoa. Dena den, herria hobeto

dagoela esango nuke, eleganteago.

- Semea gartzelan zeundela ekarri zenuten ezta?

- Sasoi gogorra izan zen. Bost urte bete zituen arte ia ikutzeko aukerarik ere ez nuen izan eta. Banekien gerta zitekeela, baina horrelakoetan ez da pentsatzen semearen onena galtzen denik, oraindik onena etortzeko dagoelako. Baina gogorra da, berak urte bat, bi, hiru izan, kristaletik begira zerbait araroa ikusiko balu moduan, negarrez hasi... eta jakina horrek min egiten du. Saiatuko naiz berarengana iristen, elkarrekin egoteko. Egun hauetan laino baten gainean dagoela esango nuke, ni moduan.

- Eta orain zer?

- Bizi, orain arte ez digute utzi eta. Hala ere, ez dut bizitzaren zati bat galdu izanaren sentsaziorik, nigan dagoen parte bat da, hor dagoena. ■

“Marijek nik bete dudan zigor bera edo okerragoa sufritu du, milaka kilometro eginez. Bera kondenatu dute, semea, lagunek... beste zigor bat bete dute”



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76

JABIER ARIZABALETA, GOIKOBALUKO LEHENDAKARIA

Goikobaluk lehendakari berria

Jabi Arizabaleta arrasatearra abesbatzaren sorreratik bertatik da Goikobaluko partaidea. Orain lehendakariaren ardura hartzea egokitu zaio; "urtebeterako bakarrik" zehazten du berak. Arrasateko abesbatzak datozen hilabeteetan izango dituen konpromezuak nahikoa zehaztuta daude dagoeneko.

- Azkenaldian isilik samar dabil Goikobalu.

- Egia. Ez sinesteko moduko urte batzuk izan ditugu, obra handiak eginez. Kontaktu bereziak aprobetxatu ziren. Orain sustraletara bueltatu gara; berriro gara herriko abesbatza normal bat. Entseuetan hasierako garaietara bueltatu gara, folklorera eta polifoniara.


- Zuzendari aldaketak ze eragin izan du Goikobalun?

- Jimmik, oso zuzendari ona izateaz gain, kontaktu izugarriak zituen, eta horri esker kontzertu eta kolaborazio berezi ugari egin izan dugu. Orain zuzendari ederra daukagu, baina Jimmik bezalako kontakturik ez daukana, eta hori nabaritzen da. Bestela, oso musiko ona eta langilea da Maidagan.

- Nola dago gaur abesbatza?

- 60 inguru gara. Astean bi entseu egiten ditugu, asteartean sokaka banatuta eta ostegunean guztiak batera. Honez gain, urtean behin Barriara joaten gara, asteburu intentsibo batetan ahots teknikak lantzen.

Jendea behar dugu. Emakumezkoak batez ere. Nik animatu egin nahi nuke jendea Goikobalura hurbil dadin. Obra handiren bat prestatzen ari garenean, orduan errazagoa izaten da, jendea berez hurbiltzen da, baina eguneroko martxan ere abesbatza terapia ederra da.



- Orfeoien mendeurrena ospatzeak eraginik izan du zuengan?

- Gu Orfeoien abesbatza kolaboratzailea gara eta Goikobaluko hamar bat abeslarik Orfeoian kantatzen du. Aurten oso egutegi estua izan dute; eskerrak guk ez genuela konpromezu handirik betetzeko.

- Zeintzuk dira konpromezu nagusienak datozen hilabeteetan?

- Gure kontzertuak izango direnak: Basaurin hil honetan bertan, Gernikan azaroan, eta Arrasatekoak. Arrasaten kantatzea gozada hutsa da, oso harrera ona izan ohi dugu. Datorren astean Mondragon Unibertsitatearen ikasturte inaugurazio ofizialean eta Aita Menniaren mendeurrenako ekitaldian abestuko dugu, baita Harremanentzat ere abenduan. Gabonetako kontzertua ere egingo dugu aurten. Nola ez, Arrasate Musikalen 25garren urteurrenko ekitaldian parte hartu nahi genuke. Aprobetxatu egin behar da herrian bertan orkestra eta abesbatza izatea; gauza ederrak egin daitezke.

aste gazte

■ LANA

- Hernaniko Udalak: itzulzaile bat. Epea: urriak 21.
- Nafarroako Gobernuak: mendi injineru bat. Epea: urriak 26.
- Soraluzeko Udalak: administrari laguntzaile bat. Epea: urriak 30.
- Nafarroako Foru Komunitateak: psikomotrizista bat. Epea: azaroak 3
- Euskal Herriko Unibertsitateak: irakasle titularrak honako espezialitate hauetan: biologia, zuzenbidea, ekonomia, estomatologia, historia, fisika, pediatria, kazetaritza, e.a. Epea: urriak 18.

■ IKASTAROAK

- *Nekazaritza eremuko garapena* ikastaroa, EHNEK antolatuta, langabetuei zuzenduta. Urriaren 23tik azaroaren 14ra. Matrikula doan. Ikastaroa Tolosan izango da.

■ BEKAK

- Lan istripuei buruz ikerkuntzak eta espezializaziorako bekak deitu ditu *Mapfre Fundazioak*. Epea: azaroak 15.

■ LEHIAKETAK

- *Indalezio Ojanguren argazki lehiaketa*, Eibarko Udalak antolatuta. Epea: urriak 22.
- *Euskadi Gaztea VIII. maketa lehiaketa*. Gutxienez 3 abestiko maketak aurkeztu behar dira. 500.000 pta. ko saria eta CD baten grabaketa. Epea: urriak 31.
- *Gabriel Aresti XV. ipuin lehiaketa*, Bilboko Udalak antolatuta. Epea: urriak 31.
- Arrigorriagako Udaren X. argazki lehiaketa antolatuta da. Epea: azaroak 28.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Jendea animatu nahi nuke. Abesbatzan kantatzea terapia ederra da”

Mugarik gabeko argazkiak

Gaur *Mugarik gabeko gazteak* argazki lehiaketaren sari banaketa

77 argazki aurkeztu dira Arrasateko Udaleko Gazteria sailak eta ASA elkarteak antolatzen duten argazki lehiaketaren zortzigarren edizio honetara.

Gazteak osagai finkoa izan ohi da urtetik-urtera lehiaketaren izenburuan, baina gaia aldatuta; aurtengoari *Mugarik gabeko gazteak* izenburua jarri diote "gazteen artean kulturen aniztasuna eta herrien arteko errespetu eta elkartasunari buruz hausnarketa bultzatu asmoz", antolatzaileen esanetan.

Lanak Estatu osotik ailegatu dira eta gaur emango da ezagutzera irabazleen zerrenda, arratsaldeko zazpiretan Harresi aretoan egingo den ekitaldian. Aurtengo berrikuntza Emakumearen udal sailak emango duen saria da; 40.000 pezetako sari berezia emango zaio emakumezkoen ikuspuntua edo errealitatea hobekien isladatzen duen argazkiari. Epaimahaia, Arrasateko ASA eta Bergarako Pol-Pol argazki elkarteetako



Iazko edizioko irabazleetako bat izan zen Javier Izquierdo sestaoarraren argazkia.

hiru kidek eta Udaleko Gazteria eta Emakumearen saileko kide banak osatuko dute.

Orain arte arrakastarik handiena 95ean ezagutu du argazki lehiaketa honek. *Gazteok bizikletan* gaia jarrita, 47 partehartzailek 107 lan aurkeztu zituzten; tartean 12 arrasatear

izan zen. Bestela, urtetik-urtera dexente aldatu ohi da partehartzea eta aurtengoa lehiaketaren historian altuenetakoa dugu.

Iazko edizioan, *Gazteak eta intsumisioa* gaia zela, jeitsiera izan zen aurkeztutako lan kopuruan. Baina gerora

erabilera handiagoa eman zitzaion, hainbat herriko jardunaldi antimilitaristetan ikusgai izan dira eta.

Mugarik gabeko gazteak lehiaketara aurkeztu diren lanak urriaren 31 bitartean egongo dira ikusgai Harresi aretoan.

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jazteko neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 79 05 80**

antzzeria



LA MIA AK.

ADOS
TEATROA

- ▶ Amaia antzokian
- ▶ Urriak 18, larunbata
- ▶ Gaueko 10.30etan
- ▶ Sarrera: 800 pta.
(Gazte Txartelarekin: 600 pta.)




ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

■ Eukeni Olabarrieta

LAGUN-AROKO LAN OSASUN SAILEKO ZUZENDARIA



Deustuarra jaiotzez, arrasatearra halabeharrez, Eukeni Olabarrieta medikuak 27 urte daramatza Lagun-Aron. Mediku bezala ezaguna bada, hizlari eta artikulugile bezala ezagunago. Bere zaletasun eta espezializazioa kirola da. Makina bat hitzaldi eman eta artikulu idatzitakoa da kirola eta osasuna gaitzat hartuta; baita liburu bat ere, orain urte gutxi Eroskik argitaratu zuena.

1. **Horoskopoa?** Eskorpio.
2. **Sinestuna zara?** Beste munduaz pentsatzeari aspaldi utzi noin.
3. **Animalia bihurtzekotan?** Belatza.
4. **Zure akats bat/gauza on bat?** Jenio txarra/Gardentasuna.
5. **Zerk lotsarazten zaitu?** Pobreziak, miseriak eta goseak.
6. **Amets bat?** Planeta ezagutzea.
7. **Zer kenduko zenuke mundutik?** Armak, ejerzitoak eta indarkeria.
8. **Gertakizun historiko bat?** Autoaren asmakuntza.
9. **Nor miresten duzu?** Pobrei laguntza ematen dieten guztiak.
10. **Zeri diozu beldurra?** Autonomiarik gabeko zahartzaroari.
11. **Zertaz damutzen zara?** Ezertaz.
12. **Negar egin duzun azken aldia?** Malako errazekoa naiz.
13. **Zer falta zaio Arrasateri?** Lasaitasuna.
14. **Eta zuri?** Gustatzen zaidan guztia egiteko denbora.
15. **Lanbidez aldatzekotan?** Pozik nago neure lanarekin.
16. **Arrasateko gustoko toki bat?** Neurre etxea.
17. **Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Pentsatzen dudana bezala bixitzea.
18. **Zein egunkari irakurtzen duzu?** Batzutan *Diario Vasco*; irratia nahiago.
19. **Gustoko janari bat?** Nik egiten ditudan bezalako entsalada ero bat.
20. **Liburu on bat?** *Caligula*, Albert Camusena
21. **Filmerik onena/txarrena?** 2001, *una odisea del espacio/Las edades de Lulú*.
22. **Musika talderik onena/txarrena?** Musika klasikoa entzun ohi dut.
23. **Telebistako programarik onena/txarrena?** *Expediente X*/Gai-nontzeko guztiak.
24. **Egin dizuten oparirik politena?** Kanarietako buganvilla lore batzu.
25. **Denbora libre zertan pasatzen duzu?** Kirola egiten eta idazten.
26. **Oporretarako toki bat?** Aire librean dagoen edozein toki lasai.
27. **Etxeko lanik gorrotagarriena?** Plantxa. Ikaragarria da.
28. **Gomendio bat?** Zoriontsu izaten saiatu.
29. **Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Egia esan behar badut, uste dut ezergatik ere ez nuela emango.
30. **200 milioi irabaziz gero?** Bidaiatu.

LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosien bitarteko aholkularitza.
- Area ezberdinen errefortzua-berreskurapena (hizkuntza, arazoiketa,...)
- Eskolako edozein zailtasunerako laguntza.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ordutegia: 15.30etatik 19.30etara.

Basabe Poligonoa (Industrialdea)
ARETXABALETA • Tel: 79 56 98

EXTRA

Deba Garaiko Kazeta

Asteartero, ostegunero eta larunbatero
kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23 • 218 postakutxatila
Tel.: 79 82 68 • Faxa: 79 43 03



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Arrasateko Bizkaia etorbideko 14, 3. ezk.an pisua salgai. Tel.: 79 22 92.

• Garagartzako Zabaldide kalean pisua salgai (Atxabalpe ondoan). 7 milioi. Tel.: 79 84 06. Eguerdietan eta gauean.

• Erguinen pisua salgai. 2 gela, egongela, bainu berria eta sukaldea. PVC, kanporako babesturiko horma, margotu berria, ate blindatua... Prezioa: 10.500.000. pta. Tel.: 77 12 08. Arratsaldeko 6.30etatik aurrera.

3. Errentan emateko

• Erdialdean etxe bat alokatzen da. Jantzita dago. Tel.: 79 08 92.

4. Errentan hartzeko

• Neska bat Arrasaten edo inguruko herrietan pisua alokatzeko gertu. Tel.: 79 89 35. Naiara.

5. Etxe konpartituak

• Bilbon, Santutxu kalean gelak alokatzen dira. Tel.: (94) 433 80 81. Maribel. Gauzez.

• Bakarrik bizi den emakume batek etxea konpartituko luke San Andres auzoan. Tel.: 79 15 96.

• Arrasaten gela bat alokatzen da. Tel.: 79 98 70. Aste barruan, gauzez.

• Bilboko La Casilla ondoan pisua osatzeko bi pertsona behar dira. Tel.: 79 19 06 goizez edo (94) 421 00 95 arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Donostian etxe konpartitu batean sartuko nintzateke. Tel.: 79 49 30.

• Iruñako neska Arrasaten pisua konpartitzeko gertu. Tel.: (948) 26 93 43.

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan.

• Eskola inguruan lagun bat behar dugu pisoa osatzeko. Tel.: 77 08 44.

• Gasteizen hiru mutilek laugarren bat behar dute pisua osatzeko. Tel.: (945) 25 10 37. Mikel.

• Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan orduetan. Alberto.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

• Kontzeziñon garajea alokagai. Tel.: 79 55 20.

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

14. Errentan emateko

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

• Deban taberna bat eskuz aldatzen da. Martxan dago. Bezero onak ditu. Orain dela gutxi berrituta. Tel.: 19 59 54.

• Leintz-Gatzagako erdi erdian taberna-jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

• Bergaran ileapaindegia alokatzen da. Tel.: 76 56 85.

LANA

17. Eskaintzak

• Ilepaintzaile tituloduna gertu ileapaindegietan lan egiteko. Tel.: 79 75 55.

• Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 79 40 72. Bitori.

• Emakumea gertu etxeko lanak egін eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 79 49. Juliana.

• Emakumea gertu umeak eta zaharrrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 97 11.

• Emakume euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko 40 urte inguruko emakumea behar da. Tel.: 79 12 73. Gaueko Betatik 10era.

• Multimedia sektoreko elkarteak komertziala behar du. Interesatuak autoa izan beharko dute. Informatika eta multimedien ezagutzak behar dira. Tel.: 71 20 30. eta 929-41 59 43.

• Multimedia sektoreko elkarteak bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

• Neska behar da etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 22 92.

• Bi ume zaintzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 94 51.

Goizetan ume bat zaintzeko esperientziadun emakumea behar dut. Tel.: 79 32 98.

• Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90.

• Bi ume zaintzeko emakume edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Sukaldaria behar dugu. Tel.: 79 68 57.

19. Denetarik

• Makinaz pasatzen dira lanak, apunteak edo dokumentuak. Tel.: 79 07 64. Fran.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Euskararen 2. urratsa emango dut ordubateatik 3etara. Ordubeteko saioak. Tel.: 77 04 98.

• ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

• DBHko ikasgai eta Logse-n matematika emateko gertu. Talde txikiak. Esperientziaduna. Tel.: 79 08 59.

21. Eskaerak

• Nire euskara hobetzeko, gauzez, irakasle partikular baten bila nabil. Astean bi edo hiru ordu. Tel.: 79 34 91. Eguerdietan, Jabi.

MOTORRA

23. Saldu

- BMW K-100 RS 16 V, ABS motorra salgai. Tel.: 79 86 33.
- Peugeot 405 SRI auto salgai. Itxiera zentralizatua, leiho igogailu automatikoa, klimatizadorea... Prezio interesgarria. Tel.: 79 63 79.
- Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Prezio eskuragarria. Tel.: 79 63 79.
- Garraiorako karroa salgai. Berria eta prezio interesgarrian. Tel.: 79 63 79.
- R-4 salgai. Oso egoera onean eta merkea. Tel.: 79 23 69.

DENETARIK

26. Saldu

- Vitus bizikleta salgai. Tel.: 76 08 21.
- Zero Sette soinu txikia salgai (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tel.: (945) 27 44 26.
- Kastle eski berriak salgai. 1,90 m. Salomon fijazioekin (7 seriekoak) eta eskiatzeko botak (46 eta 37 zenbakikoak) salgai. Tel.:

79 86 33.

- Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.

- 1. eta 2. batxiler teknologikoko euskarazko liburak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.

- SuperNintendo salgai. Laujoku ditu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.

- 1,35 zm.ko zuphogela salgai. Tel.: 79 38 16.

- Sukaldea salgai (armairuak, mahaia, hozkailua, ikuzkailua, laba...) dena egoera onean. 55.000 pta. Tel.: 79 19 36.

- Bulegorako mahaia salgai. 78x158zm. Kolore argikoa. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

- Lamuzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri berria. 40. tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gauez. Edurne.

- Kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

27. Erosi

- Gasoleozko berogailua erosiko nuke. Tel.: 79 37 14. Gaueko 8etatik aurrera.

- Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

30. Hartu

- Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.
- Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

- Urriaren 1ean larruzko karteratxo baten giltzak galdu nituen Zarugalde inguruan. Tel.: 79 35 80. Egurdi-tan.
- Maritxu gauean Ostarkun norbaitek nire txaketa eraman zuen. Urdina eta botonadura bikoitzarekin. Balio sentimental handia dauka. Sarituko da. Tel.: 79 78 80.
- Maritxu Kajoi gauean Gaztetxe inguruan Konika markako argazki makina galdu nuen. Funda beltz eta gorria dauka. Tel.: (94) 616 65 18.
- Hiper-Eroskiko kafetegian txaketa urdina galdu nuen. Ume batena da eta bihotz gorriak ditu aurrealdean. Tel.: 77 01 51. Espe.

- Urriaren 3an gizonezko aterkin luze eta beltza desagertu zitzaidan Lagun-Aroko aseguruetakoa bulegoan. Konfundituta hartu bazenuen dei egin 79 39 88 telefonora.

- Casio markako erloju beltza galdu nuen Etxezapia eta Larringain kale inguruan (Malvinas). Sarituko da. Tel.: 77 10 20.

32. Aurkitu

- Ordulari bat aurkitu nuen Munarreko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.
- Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen, zeurea bada pasa zaitzek bertatik.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Zumarragara egunero kobez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Egurdi-tan.
- Astelehenetik ostegunera Leioara joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitza interesatzen bazaizu deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.



**ZUZEN ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**




Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

■ Horoskopoa

- **Aries** Ondo dakizu egin behar duzun hori ez dela ona osasunerako.
- **Taurus** Hankak lurrean ditzulako ezin dituzu izarrak ikusi.
- **Gemini** Konzentratu lanean, dena hankaz gora jarri nahi ez baduzu.
- **Cancer** Norbaiten fantasia lizunen protagonista bihurtu zara...
- **Leo** Che Guevarak ez zuen burua bakkarrik txapela eramateko erabiltzen!
- **Virgo** Mendira joan astebukaeratako gehiegikerien hondarrak botatzeko.
- **Libra** Kolore argiek zure gogoia alaituko dute.
- **Scorpio** Neuk ere Back Street Boys ikusteko aukera galdu nuen. Buah....
- **Sagitaris** Ez zaitetz tristetu udazkenarekin, begiratu ostoen koloreak.
- **Capricorn** Esaiozu munduaren azkenera joango zarela berarekin.
- **Aquarius** Txima horiek mozteko ordua heldu da. Joan zaitetz ileapaindegira.
- **Piscis** Zuk uste duzuna baino gehiago maite zaitu.

■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Gonzalez, *Ekon* musika taldeko abeslariaren izena. 5. Mitra. 8. Makilaz emandako kolpea. 10. Gose zein egarri kendu arte jan edo edan. 11. Basati. 12. Askatu, libratu. 14. Iridioa. 15. Hitzak ahozkatzen zizipasa egin ohi duena. 17. Italiako hiria, Vesuviotik gertu. 19. Guraso berberak dituzten semeak elkarrekiko. 20. Pluraleko lehen pertsonaren izernordaina.

Bertikalak 1. Zerbaiten irudia. 2. Basoan berez jaiotzen den arana, patxarana egiteko erabiltzen dena. 3. Ahuntzaren arra. 4. Singularreko lehen pertsonaren izenordaina. 5. Sozietateko irletako handiena, Polinesia Frantsesean. 6. Italiako hiria, Friuli-Venezia Giulian. 7. (Ald.) Gehiegi. 9. Lo egiteko prestatutako gela. 13. Traidore. 16. Bi pare. 18. Musu.

Horizontalak: 1. Iban, 5. Tur, 8. Makilada, 10. Ase, 11. Ohil, 12. Jaregin, 14. Ir, 15. Tejel, 17. Napo-
Bertikalak: 1. Imajina, 2. Basaran, 3. Akter, 4. Ni, 5. Tahiti, 6. Udine, 7. (Ald.) Lar, 9. Logela, 13. Etoi, 16. Lau, 18. Pa.



Gida 98

Boskarren urtez, **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko negozio bat edukitzea nahikoa da.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDAr buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



LASTER BISITATUKO ZAITUGU!

JOSEBA UGALDE

Akonkaguaren bi aldeak ATBn

Joseba Ugalde oñatiarra izango da asteazkenean Maria Agirrerren gonbidatua "Munduari bueltaka" programan. Beste bi lagunekin batera, bi aldiz igo zuen segidan Akoncagua (6.959 m.), Andeetako gailurrik garaiena. 1988. urtea zen, eta ordura arte Mari Abrego eta Adolfo Ariz mendizale nafarrak ziren gailur hori hegoaldeetik igotako euskaldun bakarrak.



ehun metro baino gehiagoko izotz horma bat eskalatu behar izan genuen.

- Diotenez, 10 urte hauetan dexente aldatu da mendia hori.

- Erabat aldatu da. Trekking zirkuito turistikoan sartu da Akoncagua, eta gu joan ginenean topatu genituen zailtasun asko jadanik ez daude. Lehen ez zegoen ezta aterperik ere, eta orain hotela dirudien aterpea dago, dutxa, sauna, supermerkatu eta guzti. Gidak alokatzeko aukera ere badago orain.

- Mendira joatean, bertako gizartea ere ezagutu behar da?

- Bai, jakina. Mendia da helburua, baina hori bezain inportantea da lekua eta bertako jendea ezagutzea; mundua ezagutzea, azken finean.

- Bi aurpegiiko mendia da Akoncagua.

- Bai. Iparraldetik erabat sikua da. Oso mendi haizetsua da eta iparreko haize gogorrek ez dio elurrari pilatzen uzten. Hegoaldea berriz, beti dago elurtuta. Kontrastea izugarria da.

baina aklimatatzeko gailurra igo genuen bide samurretik, iparraldetik.

- Garai haietan esperimentzia gogorra izan zen zuentzat?

- Aconcaguaren hegoaldeko orma oso gogorra da. Pareta bat da eta ezin da tarte kanpamentuetan gora

eta behera ibili; gora egin behar da derrigor.



Gerturatu ahala beldurtuz joan ginen, ez genekien nora gindoazen. Zorionez eguraldia primeran portatu zen eta ez genuen aparteko arazorik izan. Zailtasunak bai. Esperimentzia behar duen mendia da, eskaladako pausu zailak daude eta. Hirugarren egunean

- Zergatik bi aldiz igo?

- Gu hegoaldeko horma eskalatzeko asmoz joan ginen,

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 18	ASTELEHENA, 20	ASTEARTEA, 21	ASTEAZKENA, 22	OSTEGUNA, 23	OSTIRALA, 24
Astean zehar eskainitako programa interesgarrienen errepikapena	13:30 Astebete (Errepik.)	13:30 Mondrasport. (Errepik.)	13:30 Burua astinduz. (Errepik.)	13:30 Munduari bueltaka. (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak. Patxi Montero.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak,... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Burua astinduz. Eneko Allende. Toy Dolls, Barón Rojo eta Jam aretoaren urteurreneko kontzertuak eta elkarriketak.	21:00 Munduari bueltaka. Maria Agirre. Joseba Ugalde oñatiarrarekin Akonkaguara joango gara.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete. Patxi Montero. Astean zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrienen sakontzea.
14:45 Lotsa barik. Gaurko gonbidatuak, Latzen taldea.				21:30 Kukaratxa Motel.	



Leintz Gatzaga berritua erakusten dizuegu aste honetako erreportaian; fotozaharrean, berriz, Leintz Gatzaga zaharra. Informaziorik ez dugu apenas, baina esaten den moduan irudi batek mila hitz baino gehiago balio du. Kasu honetan, irudi bat baino gehiago.



TXOKO TABERNA

*Cure berezitasunak pintxo eta
mckau gozoek*

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

EZ DAGO KONPARAZIORIK



omu

keramikak

Biltegia eta bulegoak: Meatzarreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

Bihotzak
gida zaitzala.



berria
Opel zure bizitzako motorea
Corsa

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.
Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eramane zaitzala

OPEL 
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURE ERABERERAK

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3. (Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.